



JOKABIDE KODE ETIKOA

0. berrik.

1

JOKABIDE KODE ETIKOA

Berrik.	Data	Aldaketen deskribapena
0	2010eko apirila	Jokabide kode etikoaren definizioa

1. AURKEZPENA

2. SARRERA

3. HELBURUA ETA IRISMENA

4. JOKABIDE KODE ETIKOAREN DEFINIZIOA

5. GARBIALDI SA-REN POLITIKA INTEGRATUA

6. KONPROMISOAK ETA ARAUAK

6.1. ZUZENDARITZA

6.2. BEZEROEKIKO HARREMANAK

6.3. HORNITZAILEEKIKO ETA AZPIKONTRATISTEKIKO HARREMANAK

6.4. GIZA BALIABIDEAK

6.5. GIZA INGURUNEAREKIKO ETA INGURUMEN INGURUNEAREKIKO HARREMANAK

6.6. ENPRESAREN JABEEKIKO HARREMANAK

6.7. LEHIAREKIKO HARREMANAK

6.8. HERRI ADMINISTRAZIO ESKUDUNEKIKO HARREMANAK

Egilea:

PABLO GARCIA

Onetsia:

ZUZENDARITZA

Data:

2010eko apirila



1. AURKEZPENA

Trapagarango (Bizkaia) enpresa bat gara, eta gure helburua esku lanean zerbitzu intentsiboak ematea da.

Estatuan kalitatean eta zerbitzuan enpresa aitzindariat ezagunak izatea dugu helburu. Horretarako, **xede** hauek ditugu: **gure zerbitzuak** gure lehiakideenetatik **bereiztea**, **gure kalitate politikarengatik eta ingurumenarekiko errespetuarengatik**. Gainera, hori lortuko badugu, **konpromiso hauek** hartu ditugu: **produktibitatea hobetzea**, **merkatuko beharrak hobeto ezagutzea**, bezeroekiko harremana **hobetzea**, **haien gogobetetzea handitzea**, eta azken batean, **gure emaitzak** eta gure langileen gogobetetzea **hobetzea**. Hartara, eskumeneko organismoek gure kalitatea eta ingurumen konpromisoa aintzat hartzea lortuko dugu.

Hori lortze aldera, honako printzipio hauek aplikatuko ditugu, jokabide etikoan eta sozialki arduratsuan oinarriturik:

- ZINTZOTASUNA, dagozkigun arauak eta bezeroekin adostutako konpromisoak leialtasunez betez.
- ERABILGARRITASUNA, bezeroen beharrei ahalik bizkorren erantzuteko.
- EZAGUTZA TEKNIKOA, gure produktuei eta zerbitzuei balio erantsi handiagoa emateko lehiakideek baino.
- ORDENA ETA GARBITASUNA zerbitzuen akaberan eta oinarritzko diziplina gisa, besteetan eragina duena.
- ERRESPETUA, ELKARRIZKETA ETA HURBILTASUNA, erakundeko pertsonetikiko harremanetan.



2. SARRERA

Kode hau da **GARBIALDI SA**ren Kudeaketa Etikoko eta Sozialki Arduratsuko Sistema (KES) osatzen duten dokumentu formaletako bat.

Behin erakundeak Administrazio Kontseiluak zehaztutako Kudeaketa Etikoko Politikaren ondorioz sistema hori bere eginda, konpromiso hori gauzatu beharra dago. Eta horretarako, sistema hori ezarri behar da.

SGEa osatzen duten dokumentuek erakunde ikuspegi berri bati ematen diote hasiera. Ikuspegi berri horri “Kudeaketa Etikoaren Kultura” dei diezaiokegu.

Kudeaketa Etikoko eta Sozialki Arduratsuko Sistemaren bidez, aurrez ezarrita dauden dokumentu formalak osatu nahi dira, eta ez haiek eragotzi, inola ere. Hona hemen dokumentu horietako batzuk: ikuspegia, xedea, balioak eta barne araudia.

Proiektuan, hau hartzen da erakundeen lehen helburutzat: ongizate handiagoa sortzea. Eta ongizatearen alderdi guztiak hartzen dira kontuan: alderdi ekonomikoa, giza harremanak eta harreman horiek gertatzen diren ingurunea.

Hain zuzen ere, ongizate hobe hori lortzeko baliabideetan eta moduetan dautza nork bere borondatez hartzen dituen konpromisoak.

Kode Etikoaren proposamen honek esparru dokumentu hau du oinarri: FORÉTICAren SGE 21. Dokumentu horrek zortzi azpiprozesutan zatitzen du enpresen eta, eskuarki, erakundeen kudeaketa etikoko prozesu orokorra.

Batzorde Etikoak dokumentu hori interpretatu beharko du erakundearen sor daitekeen zalantza edo gatazka oro konpontzeko. Interpretazio horretan, balioen espiritua lehenetsi beharko du, konponbide formaletara mugatu gabe.

	JOKABIDE KODE ETIKOA	0. berrik. 4
---	-----------------------------	-----------------

3. HELBURUA ETA IRISMENA

Jokabide Kode Etikoaren helburua da SGE 21:2005 arauaren arabera **GARBIALDI SAn** ezarritako Kudeaketa Etikoko Sistema (KES) deskribatzea.

Hauek dira Kode Etiko honen aplikazio eremuak:

- Erakundeko pertsona guztiak eta, beren ardurapeko jarduerak egitean, erakundearen izenean lan egiten dutenak.
- Bezeroen beharren eta itxaropenen kudeaketa.
- Lehiakide, hornitzaile eta aliatuen plangintza eta kudeaketa.
- Giza ingurunearekiko eta ingurumen ingurunearekiko harremanak ezartzea.
- Eskumeneko administrazioekiko eta erakunde egokiekiko harremanen plangintza.
- Konfidentziasunaren kudeaketa.
- Aurreko puntuetan aipatutako taldeen arteko interes gatazken konponbidea.

Arau honen espiritua indarreko legedia betetzea da, eta hura gainditzea, erakundearen konpromiso etikoaren eta sozialki arduratsuaren bidez.



4. JOKABIDE KODE ETIKOAREN KUDEAKETA

1. Igorpena

Zuzendaritzak egin du Jokabide Kode Etikoa; izan ere, “Egilea” laukian sinatu du.

GARBIALDI SAko Administrazio Kontseiluko kide batek onartu du Jokabide Kode Etikoa, behar adina ahalmenarekin. Kide horrek “Onetsia” laukian sinatu du.

2. Identifikazioa

“Kopia kontrolatu” gisa banatutako kopiak ondoz ondoko zenbakien bidez identifikatu dira eta berrikusi egiten dira. Informaziorako egindako kopiak “kontrolatu gabeko kopia” gisa daude identifikatuta, eta beraz, ez dira berrikusten.

3. Banaketa

Beharrezkoa da dokumentuak pertsona guztien eskura egotea, haien lanari badagozkio. Horretarako, formatu elektronikoan daude Sarean. Dokumentu horiek eguneratuta egongo dira beti, unean-unean egiten diren aldaketa guztiekin. Ildo horretan, Kudeaketa Etikoa/Gizarte Erantzukizuna arloko arduradunak emango du aldaketen berri.

Kudeaketa Etikoa/Gizarte Erantzukizuna arloko arduradunak bere gain du Kudeaketa Etikoko Sistemako dokumentazioa eguneratzea.

Langileek Kudeaketa Etikoko Sistemako dokumentuak irakurri eta inprima ditzakete. Langileren batek eskuliburua, prozedurak edo jarraibideak inprimatu baditu, haren ardura izango da dokumentu horien azken bertsioa duela egiaztatzea. Horretarako, inprimatutako dokumentuen goiburuan dagoen berrikuspena sareko dokumentuena dela egiaztatu beharko du.

Kanpoko erakunde edo enpresa bati kopiarik emanez gero, eta gerora aldaketarik egingo balitz, **GARBIALDI**k ez du dokumentazio hori eguneratzeko inolako ardurarik izango. Kopia horiek “kontrolatu gabeko kopia” gisa markatuko dira.



4. Berrikuspenak

Haren egokitzapenean eta eraginkortasunean eragina duten aldaketak egiten direnean berrikusiko da Jokabide Kode Etikoa.

Batzorde Etikoak proposatuko ditu aldaketak, eta Administrazio Kontseiluak haiek aztertu eta onetsi beharko ditu. Dokumenturen batean aldaketarik sartzen bada, dagokien atalen berrikuspen zenbakia eguneratu beharko da. Atalen bat 10 aldiz berrikusten bada –hau da 10. berrikuspenera iristen bada–, Kodea goitik behera berrikusi eta beste edizio bat egingo da.

Zaharkituta geratutako kopia kontrolatuak suntsitu egingo dira, eta aldaketak banatuko dira, 3. puntuan azaldutako prozedurari jarraituz.

5. Integrazioa

Erakundeko beste sistema batzuekin dauden sinergiak aprobetxatze aldera, Kudeaketa Etikoko Sistema haien antzera dago egituratuta. Alegia, honako hauek ditu: Jokabide Kode Etikoa, Prozedurak (beharrezkoak badira), dokumentuak eta erregistroak.

GARBIALDI SAK dokumentazio hori guztia kontrolatuko du, UNE-EN-ISO 9001 arauan ezarritakoa betez. Hain zuzen, arau horretan oinarritzen da **GARBIALDI**ren Kalitatea Kudeatzeko Sistema, nahiz eta, kanpo ikuskaritzari begira, dokumentazioa sistema horrekiko autonomoa eta independentea izan.



5. GARBIALDI SA-REN KUDEAKETA ETIKOKO POLITIKA

GARBIALDIk zerbitzu hauek ematen ditu: **barrualdeen garbiketa, bide garbiketa, arriskurik gabeko hondakinen bilketa, lorezaintza, osasun zentroyen garbiketa eta sukaldeko laguntza teknikoa**. Beraz, kudeaketa arlo horietan guztietan berretsi du bere konpromiso etikoa. GARBIALDIk bere egindako balioak zein enpresaren xedea eta ikuspegia hartzen ditu barne konpromiso horrek.

Eta konpromiso horren ondorio da enpresaren Kudeaketa Etikoko Sistema arautuko duen **Kudeaketa Etikoko eta Sozialki Arduratsuko Politika**.

Politika horrek klausula hauek ditu ardatz:

1. Indarrean dagoen ordenamendu juridikoa betetzea, formalki zein materialki, eta ingurumenaren arloan eta arlo sozioekonomikoan hartutako konpromisoak eraginkorrak izatea. Enpresaren konpromisoaren berri ematea interesa duten alderdiei.
2. Bezeroei enpresaren konpromiso etikoaren berri ematea, kontratazio agiriaren bidez eta Garbialdi SAREN xedea lortzeko zerbitzuak ematean.
3. Enpresa kolaboratzaileei, kontratistei eta hornitzaileei ingurumen eta gizarte arloetako legedia bete dezaten eskatzea. Ondasunak eta zerbitzuak erosteko eta kontratatzeko politikaren bidez egingo zaie eskaera hori.
4. Kudeaketako Etikoko Sistemaren printzipioak garatzea enpresaren jarduera eremu guztietan, aldizkako ekintza helburu eta programa zehatzen bidez. Gainerako politikak osatuko dituzte; batik bat, kalitatekoa, ingurumenekoa, arrisku prebentziokoa eta giza baliabideen kudeaketakoa.
5. Enpresak Kudeaketa Etikoko Sistemaren jarraipena egiteko mekanismoak ezartzea. Jarraipen horren oinarriak hauek izango dira: autokontrola, ardurak esleitzeko prozeduren erabilera eta kudeaketaren berrikuspena.
6. Baliabideak (ura, energia...) eraginkortasunez erabiltzea, haien kontsumoa txikituz, hondakin gutxiago sortuz, eta kutsadura eta eragin mailak txikituz.



JOKABIDE KODE ETIKOA

0. berrik.

8

7. Etengabeko ingurumen eta gizarte hobekuntzarako konpromiso zehatzak hartzen laguntzea, programak ezarriz, eta enpresako Kudeaketa Etikoko Sistema aldian behin egiaztatuz eta ikuskatuz.
8. Garbaldi Sako langileak prestatzeko, sentsibilizatzeko eta motibatzeke neurriak hartzea. Enpresak giza baliabideen kudeaketa etikoarekin duen konpromisoa berresten da. Hona hemen kudeaketa horren oinarriak: laneko eta arrisku prebentzioko araudiaren errespetua; berdintasunaren bermea, langileak hautatzean eta tratatzean, sexuagatiko, etniagatiko edo beste edozein gizarte baldintzagatiko desberdintasunik gabe; lana eta bizitza familiarra bateratzeko neurriak; langileen beharrak aintzat hartzea; eta haiei euren konpromisoak betetzen laguntzea.

Garbaldi SAko Zuzendaritzak bere egiten du politika hori, eta hura sustatzeko konpromisoa hartzen du.

Zuzendaritza



6. KONPROMISOAK ETA ARAUAK

6.1. ZUZENDARITZA:

Funtsezko balioak dira dokumentu honetan azaltzen diren alderdi interesdunekiko **errespetua** eta ematen zaien informazioaren **egiatasuna**.

Zuzendaritzak erakundeak **aurrera jarraitzea** izan behar du helburu, bai eta alderdi guztien interesak **defendatzea** ere. Horretarako, konfidentzialtasuna bermatuko du, beharrezkoa denean, eta erakundearen interes orokorrak lehenetsiko ditu, kide bakoitzaren interes partikularren aurrean.

Zuzendaritza Kudeaketa Etikoko Sistemako erreferentzia ereduia izango da, eta zuzenezuzenean parte hartu eta pertsonak etengabe hobetzera bultzatuko ditu.

Kudeaketa Etikoko Sistema garatzeko eta ezartzeko zein haren eraginkortasuna hobetzen jarraitzeko duen **konpromisoa adierazteko**, Zuzendaritzak hau egingo du:

- Balio etikoak defendatzeko konpromiso publikoa adierazten duen Kudeaketa Etikoko Politika maila guztietan ezarri eta zabaldu.
- Erakundeko maila guztietan jakinarazi Kudeaketa Etikoko Sistema ezartzea zeinen garrantzitsua den.
- Zuzendaritzaren eta Erakundearen arteko harremanak zehazteko Jokabide Kodea ezarri.
- Helburu egokiak ezarri, sistema berrikusi eta baliabide egokiak eman.
- Komunikazio eta informazio kanalak beti irekita egongo direla bermatu, gatazkak ahalik lasterren konpontzeko, Jokabide Kode horretan oinarrituta.
- Batzorde Etikoko kideak izendatu. Batzorde horrek bere arauak jarri eta Kode Etikoa nola interpretatu erabakiko du. Batzorde aholku emailea izango da, eta alderdi interesdunen arteko gatazkak konpontzea izango du helburu.

1.1. Kudeaketa Etikoko Politika



JOKABIDE KODE ETIKOA

0. berrik.

10

GARBIALDI SAko Zuzendaritzak “Kudeaketa Etikoko Politika” dokumentua ezarri, eguneratu eta berrikusiko du. Dokumentu hori Jokabide Kode Etiko honen **E** atalean dago erantsita.

Gerentziak izenpetuko du dokumentua. Kudeaketa sistema integratuak zehaztutako leku eta banaketa bide berberen bidez banatuko da dokumentu hori erakundean.

Zuzendaritzak berrikusiko du Politika Integratua, egokitzat jotzen duenean eta sistema integratuko PG-02an deskribatutako sistematikari jarraituz.

1.2. Kode Etikoa

GARBIALDI SAko Zuzendaritzak du Kode Etikoa idazteko ardura.

Beharrezkoa da dokumentuak pertsona guztien eskura egotea, haien lanari badagozkio. Horretarako, formatu elektronikoan daude Sarean. Dokumentu horiek eguneratuta egongo dira beti, unean-unean egiten diren aldaketa guztiekin. Ildo horretan, Kudeaketa Etikoa/Gizarte Erantzukizuna arloko arduradunak emango du aldaketen berri.

Kudeaketa Etikoa/Gizarte Erantzukizuna arloko arduradunak bere gain du Kudeaketa Etikoko Sistemako dokumentazioa eguneratzea.

Langileek Kudeaketa Etikoko Sistemako dokumentuak irakurri eta inprima ditzakete. Erakundeko langileei eta hornitzaile nagusiei “kontrolatu gabeko kopiak” emango zaizkie. Garrantzi txikiagoko hornitzaileek informazio kopia bat eskatu ahal izango dute. Kopia horrek hornitzaileei dagokien atala baino ez du izango.

1.3. Batzorde Etikoa

Batzorde Etikoan, pertsona hauek egongo dira:

José Antonio Souto

Ana García Cisneros

Aurkene Santamaría Eskubi

Pablo García Rodríguez



Julen Bermeosolo

Batzorde horretan izatea borondatezkoa izango da, eta kide bakoitzaren onarpena horretarako egingo den bileraren aktan jasoko da, dagokion orrian.

Batzorde Etikoko kide bat idazkaria izango da, baita gai zerrenda egiteko arduraduna, bozeramailea eta sortutako erregistroen arduraduna ere (bilera aktak, gatazken konponbidea, etab. Erregistro horiek beste kudeaketa sistema integratuek (kalitatea, ingurumena eta prebentzioa) sortutakoak bezala kontserbatuko dira.

Erregistroen ardura duen kideak Kudeaketa Etikoko Sistema hau ebaluatzen duten auditoreekin tratatu beharko du.

Batzorde Etikoak zuzen funtzionatuko badu, zenbait arau onartu eta ontzat eman beharko ditu Zuzendaritzak. Arau horiek dagozkion bilera aktan jasoko dira (Kudeaketa Sistema Integratuko FR-PG-02-01).

Batzorde Etikoaren arauak

1. Batzorde Etikoa hiru hilean behin bilduko da, Kode Etikoa betetzen ari ote den egiaztatzeko, bai eta, kode hori ez errespetatzeagatik, talde interesdunen eta erakundearen artean sortutako zalantza, salaketa eta gatazka oro aztertzeke ere.
2. Batzorde Etikoak erabaki guztiak aho batez hartzen ahalegindu behar du. Hori egiterik ez balego, hiru laurdeneko gehiengo kalifikatuz hartu beharko ditu erabakiak, eta hori ere lortu ezean, gehiengo soilez. Bilera aktetan, batzordekideen arteko desadostasunak jasoko dira.
3. Erakundeak onartuko du Batzorde Etikoak soilik interpreta dezakeela Jokabide Kode Etikoa, eta haren erabakiak apelaezinak direla.
4. Batzorde Etikoan aditurik sartzen bada, bilera aktan jaso eta adituaren curriculum profesionala gehituko da. Adituak ez du botoa emateko eskubiderik izango.
5. Alderdiren batek salaketa egiten badu, Batzordeak banan-banan jakinaraziko die alderdiei salaketa hori Jokabide Kode Etikoaren arabera hutsegitea den ala ez.



Hutsegitetzat jotzen ez bada, dagokion kudeaketa sistemara bidali eta aktan jasoko da.

6. Jokabide Kode Etikoaren arabera hutsegite bat egin bada, Batzordeak **neutraltasunez eta konfidentziasunez** jokatu du. Alderdi interesdun bakoitzarekin batuko da, albait eta informaziorik osoena biltzeko eta aukera guztien berri emateko (erabil daitezkeen lege bideak ere azalduko ditu).
7. Informazioa biltzeko bileren ondoren, Batzorde Etikoak konponbide posibleak aztertu eta erakundearen balio etikoekin ondoen bat datorren aukera proposatuko du. Proposamen hori bilera aktan jasoko da.
8. Zuzendaritzak bere bilera aktetan jasoko ditu gatazkak konpontzeko Batzorde Etikoak egindako proposamenak. Gainera, proposamenak onartu diren ala ez ere adierazi beharko du.

1.4. Informazio fluxua

Batzorde Etikoak beharrezko informazioa eskuratzen duela bermatzeko, Zuzendaritzak kudeaketa sistema integratuan jasotako informazio eta erregistro sistema erabiliko du, baita langileen gogobetetasun inkestak ere.

Zuzendaritzak konpromisoa hartzen du Kode Etikoa ez betetzeari buruzko komunikazio guztiak Batzorde Etikoari helarazteko ahalik lasterren.

1.5. Jakinaraztea

Kudeaketa Etikoko Sistema ezarri dela jakinaraziko zaie talde interesdun guztiei, eta Politika Integratuaren kopia bana emango.

1.6. Ikuskaritzak

Urtean behingo barne ikuskaritzen bidez, **GARBIALDI SAK** honako hau egiaztatuko du: Kudeaketa Etikoko Sistemak SGE 21 arauaren baldintzak betetzen dituen, Politika Integratuan adierazitako konpromiso etikoak betetzen ari ote diren, eta Kode Etiko honetan zehaztutako ekintzak zenbateraino betetzen diren.



Zuzendaritzak izango du ikuskaritza egiteko ardura, eta Zuzendaritza bera edo hark baimendutako pertsona ikuskaritzari buruzko dokumentuak artxibatzeaz arduratuko da.

Batzorde Etikoko bozeramaileak ikuskaritza egiteko beharrezko dokumentazioa eta informazioa emango dizkio Zuzendaritzari, Egiaztapen Zerrendaren arabera (FR-PE-07-02-05).

Ikuskaritza txostena (hautemandako akatsak) Batzorde Etikoko idazkariari bidaliko dio Zuzendaritzak, eta horrek, Batzorde Etikoko gainerako kideekin batera, beharrezko zuzenketak egingo ditu ahalik bizkorren.

SGE 21 sistemari dagokionez, Kudeaketa Sistema Integratuko arduradunak egin behar du ikuskaritza. Urtean behin egiten da, eta ikuskaritza planaren arabera. Barne ikuskaritzak egiteko, Zuzendaritzak azter dezake **GARBIALDI SA**tik kanpoko pertsona bati agintzea.

6.2. BEZEROEKIKO HARREMANAK

Bezeroekiko harremani dagokienez, Zuzendaritza ahaleginduko da haien konfiantza lortzen, elkarren arteko komunikazioa arina izaten, eta itxaropen faltsurik ez sortzen.

Balioak

Honako hauek dira balio nagusiak: bezeroen –edo zerbitzu eta produktuen hartzaileen– behar eta itxaropenak betetzea, haien konfiantza lortzea, eta haiekin zintzotasunean eta hartutako konpromisoekiko leialtasunean oinarritutako harremanen bidez komunikatzea.

Erantzukizunak

Bezero errealekin zein potentzialekin harremanak dituzten pertsonak agerian jarriko dute erakundeak aipatutako balioekin duen konpromisoa. Horretarako, hau bermatuko dute:

- Bezeroei gure produktu eta zerbitzuei buruz emandako informazioa egiazkoa dela.
- Datu konfidentzialak –batik bat, izaera medikokoak eta ekonomikoak– kontrolatzeko, babesteko eta erabiltzeko sistema segurua ezarriko dela.
- Erakundeak bete ezin dituen konpromisoak ez dituela onartu.



6.3. HORNITZAILEEKIKO ETA AZPIKONTRATISTEKIKO HARREMANAK

Guztiontzat onuragarriak izango diren aliantzak eta harremanak ezarriko ditugu, konfiantzan, ezagutza trukean eta integrazioan oinarrituak, honetarako:

- Hornitzaileei laguntzeko, haien horniketak bi alderdientzat onuragarriak izan daitezen.
- Alderdien artean balioa sortzeko eta maximizatzeko.
- Elkarrekin garatzen laguntzeko.
- Bi alderdien kulturak bateragarriak direla bermatzeko.

Balioak

Harremanen gardentasuna eta tratuaeren berdintasuna dira funtsezko balioak.

Erantzukizunak

Zuzendaritzak edo hark baimendutako pertsonak Erakundeak hartutako konpromiso etikoaren berri emango die hornitzaileei. Gainera, arauak hornitzaileentzat ezarritako eskakizunak ezartzeko eskatuko die hornitzaile nagusiei.

3.1. Hornitzaileekiko eta azpikontratistekiko harremanen garapena

Hornitzaileekin eta azpikontratistekin ez da Kode honen balioei kalte egiten dien harremanik ezarriko, inola ere.

GARBIALDI SAK hornitzaileekiko lankidetzari buruzko komunikatua onartzeko eskatuko die enpresa hornitzaileei. Horren bidez, enpresa hornitzaileek ziurtatuko dute produktu eta zerbitzu hornidurek jatorrizko herrialdean indarrean dagoen legedia errespetatu dutela, edo lege aplikagarriarik egon ezean, Giza Eskubideen Adierazpeneko artikulua guztiak errespetatu direla.

Eskakizun hori hornitzaileak ebaluatzeko baldintza gehigarritzat hartuko da, Kalitatea Kudeatzeko Sistemak, hornitzaileak ebaluatzeko metodologian dokumentatzen duen prozeduran (UNE EN ISO 9001 eta 14001 arauen eskakizuna).

3.2. Auzien kudeaketa

Zalantzak edo gatazkak Batzorde Etikoaren aurrean aurkez daitezke, kode honetan azaldutako balioen arabera azter ditzan.



GARBIALDI SAK enpresaren eta hornitzaileen arteko gatazken eta auzien idatziz jasoko ditu erregistro batean (Integra).

3.3. Hornitzaileen begiruneak

GARBIALDI SAREN ezaugarriak direla medio, hornitzaileen opariak, maileguak, zerbitzuak, ordainketak edo tratu bereziak ez dira garrantzitsuak. Gainera, edozein kasutan, ez zaizkie alderdi interesdunei ezkututzen.

6.4. GIZA BALIABIDEAK

GARBIALDI SAK bere langileei –bai bertakoei bai azpikontrataturakoei– hau emango die:

- Euren funtzioa egiteko prestakuntza eta trebakuntza, egokia eta beharrezkoa.
- Garbaldi SAREN helburuen eta hura osatzen duten pertsonen familia bizitzaren eta egoera pertsonalen arteko bateragarritasuna.
- Giro lasaia eta lagunartekoa, langile guztiak integratzea ahalbidetzen duena.
- Diskriminazio edo eraso sexualeko, profesionaleko edo moraleko egoerei arreta berezia ematea.
- Pertsonak gai hauekiko kontzientziaztea eta inplikatztea: etika, kalitatea, higiena, segurtasuna, psikosoziologia, ergonomia, ingurumena eta gizarte erantzukizuna.
- Komunikazio irekia, besteen kezkekiko harbera. Gainera, enpresari eta haren lorpenei buruzko informazioa emango die langileei, motibaturik eta horren partaide senti daitezten.
- Balio elkarbanatuak, eta konfiantza eta ardurak onartzea sustatzen dituen kultura, pertsonak inplikaturik senti daitezten.

Balioak

Errespetua, elkarriketa eta hurbiltasuna dira balio nagusiak.

Erantzukizunak



GARBIALDI SAk ziurtatuko du lan harreman guztiek indarreko legediak ezarritako baldintzak betetzen dituztela arlo guztietan (lan arloa, gizarte arloa, laneko arriskuen prebentzioa eta indarreko zuzenbide positiboak araututako beste edozein esparru). Langileen ordezkarietako harremanak elkarrizketan eta elkarlanean oinarrituko dira, balioa eta errentagarritasun ekonomikoa lortzeko helburu komuna eta funtsezkoa lortze aldera, hori baita enpresa ororen lehentasunezko xedea.

6.4.1. LEGEDIA ONARTZEA ETA BETETZEA

GARBIALDI SAk Kudeaketa Sistema Integratuko PG-09 prozeduran ezarritako lege baldintzak betetzeko konpromisoa hartzen du, bere Politika Integratuan jasota dagoen moduan.

Lan Administrazioari buruzko dokumentu guztiak konpromiso hori betetzen den ala ez egiaztatzeko erabiliko dira.

6.4.2. KOMUNIKAZIO ETA INFORMAZIO BIDEAK

GARBIALDI SAko pertsonak Kudeaketa Sistema Integratuan ezarritako komunikazio sistemak erabil ditzakete. Ahozko jakinarazpenak, kexak eta erreklamazioak Batzorde Teknikoari helaraziko zaizkio, betiere, interesdunak nahi badu.

Batzorde Etikoari jakinarazpenik helarazteko, Zerbitzu Arduradunen bidez egin behar da zuzenean, postaren, faxaren edo garbialdi@garbialdi.com e-postaren bidez.

6.4.3. ZIOAK

GARBIALDI SAko langileek Batzorde Etikora jo dezakete, euren ustez gatazkarik badago (erasorik edo diskriminaziorik badago, generoa, arraza, erlijioa, urritasuna, ideologia edo beste edozein arrazoi dela medio informazioa edo lanbide prestakuntza jasotzerakoan).

6.4.4. PRESTAKUNTZA ETA PROMOZIOA

GARBIALDI SAko Zuzendaritzak ahaleginak egingo ditu langile guztiek prestakuntza eta promozioa berdintasunez jasotzeko aukera izan dezaten. Prestakuntza eta promozioa

GARBIALDI SAren dokumentuetan geratuko da jasota.

6.4.5. ERREGISTROAK



Zuzendaritzak honako hauek jasoko ditu erregistroetan: absentismoa, kaleratzeak, salaketak, bajak, lekualdaketak eta lanpostuen ebaluazioak.

Erregistro bakoitzean zehaztutako eremuak derrigorrez betetzekoak dira, eta ondoren, txosten bat egin beharko da. Txosten hori ikuskaritzan erabili eta Administrazio Kontseiluan aurkeztuko da, hura aztertu eta erabakiak har ditzan.

6.4.6. GARBIALDI SA-KO LANGILEEN ESKUBIDEAK

GARBIALDI SAk bermatuko du haren eta langileen arteko harremanen funtsezko oinarriak errespetatzen direla; hain zuzen ere, sindikazio askatasuna eta negoziazio kolektiborako eskubidea.

6.4.7. ORGANIGRAMA

GARBIALDI SAko Zuzendaritzak enpresa barruko komunikazio bideak erabiliko ditu organigramaren berri emateko, Kudeaketa Sistema Integratuan zehaztuta dagoen moduan; hain zuzen, erantzukizunak eta agintariak zehaztuko ditu.

6.5. GIZA INGURUNEAREKIKO ETA INGURUMEN INGURUNEAREKIKO HARREMANAK

Proiektu berriek euren ingurunean eragin positiboa izatea nahi dugu; zehazki, kultura, gizarte eta ingurumen arloetan. Horretarako, tokiko komunitateen iritzia hartuko dugu kontuan, eurei dagozkien erabakiak hartzerakoan, bai eta etorkizuneko belaunaldientzat proiektu horiek izan ditzaketen ondorioak ere.

Balioak

Erantzukizuna, elkarrizketa, gertutasuna, alderdi interesdunekiko hurbiltasuna eta grapen iraunkorrekiko konpromisoa dira balio nagusiak.

Erantzukizunak

GARBIALDI SAk hau onartzen du:

- Publizitateak produktu, zerbitzu eta lorpenei buruzko egiazko informazioa emango du. Kontrabalioetan edo xede den gizarte sektorearen ahulezietan oinarritutako publizitatea galaraziko da.



- Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean aitortutako giza eskubideak eta askatasun publikoak errespetatuko ditu, ez du inolako diskriminaziorik eragingo, eta ez du ez haur lana ez lan gehiegikeriarik onartuko. Gainera, konpromiso hori onartzeko eskatuko die hornitzaileei eta enpresa kolaboratzaileei.
- Aplikatu daitezkeen lege eta arau nazionalen eta nazioartekoaren arabera jokatu du. Eta ez du, inondik inora, hirugarrenek enpresa edo langileak azpitik erostea onartuko, eta alderantziz.
- Bere instalazioak seguruak direla bermatu eta haien eragina txikituko du, inguruko komunitateei edo pertsoneri eragozpen eroanezinik ez eragiteko, bai eta ingurunea errespetatzeko ere. Betiere, muga teknologikoak kontuan izan behar dira, eta zerbitzuaren eta produktuen beharrak zaindu.
- Inguruko komunitateekin konpromisoa hartuko du. Horretarako, jarduera hauek eta antzekoak sustatuko ditu: kirola eta aisia.
- Lehengaien eta baliabide naturalen kontsumoa optimizatu, eta sortutako hondakin kopurua txikituko du. Gainera, enpresaren jarduerak ingurumenean izan ditzakeen eraginak prebenitzeko beharrezko tresnak zehaztuko ditu.

6.5.1. LEGE BETEKIZUNAK

Kudeaketa Sistema Integratuak deskribatutakoaren arabera betetzen dira. Kudeaketa Sistema Integratuak UNE-EN-ISO 9001, UNE-EN-ISO 14001 eta OHSAS 18001 arauak betetzen ditu, baita **GARBIALDI SA**ren jarduerari aplikatzekoak diren legeak ere.

6.5.2. GIZARTE JARDUERAK

GARBIALDI SAk txosten bat egingo du urtero, bere enpresa xedeei ez dagozkien ekintza solidarioak eta gizarte laguntzakoak jasotzeko. Informazio hau adieraziko da: erakunde hartzailea, kolektibo onuraduna eta emandako laguntzen edo zerbitzuen zenbatekoa.

Zuzendaritzak aztertu eta onartuko du gizarte jarduerari buruzko txostena (FR-SGE-12).

6.6. ENPRESAREN JABEEKIKO HARREMANAK



Gardentasuna, leialtasuna, komunikazioa eta balio iraunkorra sortzea dira funtsezko balioak.

Erakundeak inbertitzaileei emango dien informazioa egokia, gardena, osoa eta egiazkoa izango da beti. Konpainiaren gobernuari, jardueri, proiektuei eta emaitzei buruzko informazioa hartuko du barne. Informazio hori fidagarria izango da, eta merkatuei ematen zaienarekin bat etorriko da. Irizpide profesionalei eta egiaztagarriei jarraituz egingo da.

GARBIALDI SA ahalik onurarik eta errentagarritasun ekonomikorik handiena lortzen ahaleginduko da, betiere, etikari eutsita. Jabeek planifikatutako eta proposatutako hazkundera eta garapen estrategikoa lortzeko ahaleginak ere etikari atxikiko zaizkio. Une oro, **GARBIALDI SA**ren helburuak eta gainerako talde interesdunen beharrak nahiz itxaropenak bateragarriak izatea hartuko da kontuan.

Oro har, erakundeak gardena izan behar du, urteko ekonomia eta gizarte balantzea egiteko eta argitara emateko.

Gainera, unean-unean, **GARBIALDI SAK** erakundeari eta bere ekintza nagusiei buruzko informazio osoa, egiazkoa eta gardena emango die jabeek, bai eta bere emaitza operatibo, ekonomiko eta sozialei buruzkoa ere.

Jabeekiko harremanetan, **GARBIALDI SAK** legaltasun, gardentasun, lankidetzaren, profesionaltasun eta konfidentzialtasun irizpideak izango ditu ardatz. Orobat, irizpide horiek berberak arautuko dituzte inbertsioak kudeatzeko eta kontrolatzeko jarduerak guztiak.

GARBIALDI SAK aldizkako informazioa emango die bazkideei, gai hauei buruz: kudeaketa sistemari; politika eta ekintza planei; kexei eta erreklamazioei; istiluei; enpresaren eta kudeaketa sistemaren ikuskaritzaren emaitzei; salaketei, gatazkei edo alderdi interesdunekiko auziei; eta enpresaren jabeek dagokien gauza eta gertaera orori.

6.7. LEHIAREKIKO HARREMANAK

Enpresa lehiakideekin harremanak izaten ahaleginduko da **GARBIALDI SA**, jarduerak hobeak elkarbanatzeko, bai esperientziak elkarri azaltze aldera, bai eskaintako produktuak eta zerbitzuak hobetze aldera.



JOKABIDE KODE ETIKOA

0. berrik.

20

GARBIALDI SAK ez du bidegabeko lehiarik egingo, ez eta lehiakideei buruzko informazio faltsua, manipulatu edo alderdikoia zabalduko ere. Lehiakideei buruzko informazioa lortzeko, lege bideak baino ez ditu erabiliko, eta jabetza ukigarriaren eta ukiezinaren eskubideak errespetatuko ditu.

GARBIALDI SAK merkatu librean oinarritutako harremanak bilatuko ditu, besteen balioei muzin egin gabe bere balioak goresteko. Harreman horiek, gainera, alderdi interesdun guztien onura ekarriko dute.

GARBIALDI SAK enpresa lehiakideen esparruan aplikatu daitezkeen legeak onartu eta beteko ditu, eta **GARBIALDI SAK** jarduten duen herrialdeko legediak nazioarteko zuzenbidearen gutxienekoa bete ezean, nazioarteko zuzenbidea hartuko da gutxieneko legedizat.

Balioak

Errespetua eta interes komuneko gaietan elkarlanean aritzea dira funtsezko balioak.

Erantzukizunak

Zuzendaritza arduratzen da enpresa lehiakideen ohorea eta jabetza eskubideak errespetatzeaz, industria espioitzako legez kontrako jarduerak galaraztea eta lehia librea errespetatzeaz.

7.1. Salaketak

Enpresa lehiakideen eta agintaritzaren erreklamazioen eta salaketen erregistroa egongo da (Integra). Halaber, erregistro horretan, hartutako neurriak ere jasoko dira. Orobat, zitazioak eta/edo kereilak ere erregistratuko dira, bai eta prozesua bukatutzat ematen duen akordioaren edo epai irmoaren kopia ere.

7.2. Adiskidetze bilerak

Adiskidetze bilerarik egin ez gero, haren akta egin eta erregistrotzat hartuko da.

6.8. HERRI ADMINISTRAZIO ESKUDUNEKIKO HARREMANAK

GARBIALDI SAK etikoki beteko ditu lege betebeharrak guztiak (fiskalak, lan arlokoak, etab.) eta Gizarte Segurantzakoak, jarduera garatzen duen lurralde guztietan. Gainera, une oro informazio eskaerei erantzuteko prest dago, eskaera edozein funtzionariok egiten duela ere, eta bizkor eta zehatz emango du informazioa.



GARBIALDI SAK ez du, erakundearen ezein jardueratan, herri administrazioetako organoen legez kontrako edo etikarik gabeko mesede traturik bilatuko edo onartuko, ez legeari edo araudiari dagokienez, ez finantza, zerga edo merkataritza baldintzetan, besteak beste.

GARBIALDI SAK tratu adeitsua izango du Herri Administrazioiko organoekin eta ordezkariekin, baita agintari politikoekin ere. Harreman profesionalak baino ez dira izango, eta haietan, ez du oparien edo sarien bidez abantailarik bilatuko.

GARBIALDI SAK ustelkeriaren aurka –baita estortsioaren eta eroskeriaren aurka– borrokatzeko konpromiso hartzen du.

Balioak

Konfiantza et legeak betetzea dira funtsezko balioak.

Erantzukizunak

Zuzendaritzak arduratu behar du talde interesdunek erakundearen lege testuinguruaren berri dakitela eta administrazioak informazio gardena lortuko duela bermatuta dagoela. Tratu adeitsua ezarriko da, oparien edo sarien bidez abantailarik bilatu gabe.

8.1. Informazioa

Erakundearen irudi etikoa hobetzeko burututako ekintza guztiei buruzko informazioa emango zaie erakunde egokiei. Bidalitako txostenen edo jakinarazpenen kopia bana gordeko da jarduera horien erregistro gisa. Gainera, datak, hartzaileak eta kontaktatutako administrazioa zehaztuko dira.

Administrazioekiko izapideak eta bidaltzen zaizkien jakinarazpenak Kudeaketa Sistema Integratuko FR-PG-02-02 formatuan erregistratu behar dira.

8.2. Ekitaldietarako gonbidapenak

GARBIALDI SAK funtzionarioentzako gonbidapenen erregistro bat izango du. Horretan, gonbidapenaren zioa (arloan profesionala izan behar du derrigorrez) zein oparien eta adeitasunen kostua jasoko dira.

Gainera, erregistro horretan, Administrazioak berak bere kargudunentzat ezarritako gastu maila normalak ere adieraziko dira. Zenbatekoa gehiegizkoa balitz, aldearen zergatia azaldu behar da.